

Batez beste, batez besteko eta batezbesteko ez dira gramatika-kategoria bereko:



- **batez beste** *adb.*
- **batez besteko** *izlag.*
- **batezbesteko** *iz.*



BATEZ BESTE (adberbioa)

Pertsona baten gorputzak bost bat litro odol dauzka **batez beste**.

John Lenihan: *Giza gorputza lanean*, EHU, 2006. *Euskaratzailea*: Irene Aldasoro.

- *...bost bat litro odol dauzka **bataz beste**.
- *...bost bat litro odol dauzka **batazbeste**.
- *...bost bat litro odol dauzka **batezbeste**.

Esanahi berekoak dira honako esapide hauek:



BANA BERTZE *Ipar.*

Hamabortz bat gazte dira orotara taldean. Bana bertze 22 urte dituzte.

Nora Arbelbide: “Azken aukera”. *Berria*, 2018ko irailak 25.



BANAZ BERTZE *Naf.*

Banaz bertze hamar bat pottoka ziren.

Koldo Zuazo, *Sarako hiztegia*, EHU, 2017.



BATENAZ BESTE

Batenaz beste, gurera etorritz, Donostialdeak 79 litro jaso ohi ditu.

Pello Zabala: *Naturaren mintzoa*, Alberdania, 2000.



BATEZ BESTEKO (izenlaguna)

Glaziarren **batez besteko luzera** 1800 inguruan
hasi zen urritzen.

A.E. Dessler; E.A. Parson: *Klima-aldaketa globalaren zientzia eta politika*,
EHU, 2009. Euskaratzailea: Iñaki Iñurrieta.

***Glaziarren batezbesteko luzera...**

***Glaziarren batzbesteko luzera...**



BATEZ BESTEKO (izenlaguna)

Berokuntza artifizialik ez zen garaietan, 21 °C inguruko **batez besteko temperatura** zuten eskualdeetan sortu ziren lehenengo

zibilizazioak. John Lenihan: *Giza gorputza lanean*, EHU, 2006.
Euskaratzailea: Irene Aldasoro.

*...**batezbesteko** temperatura...

*...**batazbesteko** temperatura...


Herrialde industrializatuen inportazioen gaineko **batez besteko muga-sariak** zortzi bider

murriztu dira. Jacques Adda: *Ekonomiaren globalizazioa*, EHU, 2004.
Euskaratzailea: Koro Navarro.

BATEZ BESTEKO (izenlaguna)

Hortaz, '**IZENLAGUNA+IZENA**' egitura dugu aurreko bi diapositibetan; baita honako adibide hauetan ere:


- Batez besteko **adina**
- Batez besteko **abstentzia**
- KPIaren batez besteko **aldakuntza**
- Batez besteko **garaiera**
- Batez besteko **itxaronaldia**
- Batez besteko **kopurua**
- Ikus-entzuleen batez besteko **kopuru metatua**
- Batez besteko **kotizazio-prezioa**
- Soldaten batez besteko **mailaren igoera**
- Batez besteko **negoziazio-trukaneurria**
- Batez besteko **prezioa**
- Batez besteko **tirada**
- Batez besteko **urteko errenta**
- ...



BATEZBESTEKO (izena)

Hipaso baino lehenago, bi ziren **batezbestekoak**: aritmetikoa eta geometrikoa.

Denis Guedj: *Loroaren teorema* (EHU, 2005). Euskaratzailea: Jon Muñoz.



Euskaltzaindiaren
Hiztegia

Zer:
batezbesteko

Non:
sarreretan

Bilatu

batezbesteko aritmetiko *Mat.*
Zenbakizko hainbat daturen
batura datu kopuruaren artean
zatitzearen emaitza. *2005-2006*
ikasturteko etekin
akademikoaren batezbesteko
aritmetikoa 5,65ekoa izan zen.


batezbesteko geometriko *Mat.*
Zenbakizko n daturen
biderketaren n -garren erroa.
Batezbesteko geometrikoa
hazkunde tasak kalkulatzeko
erabili ohi da.

BATEZBESTEKO (izena)

Hona zenbait batezbesteko-mota, Euskaltermen jasoak:

- aldiko batezbestekoak *Geol.*
- arrazoi-erako batezbestekoak *Mat. Estat.*
- batezbesteko baldintzatu *Mat. Estat.*
- batezbesteko haztatu *Mat. Estat.*
- batezbesteko marjinal *Mat. Estat.*
- batezbesteko mugikor *Mat. Estat.*
- batezbesteko partzial *Kirol.*
- batezbesteko teilakatuak *Mat.*
- egunean artatutako pazienteen batezbesteko *Admin.*
- laginaren batezbesteko *Mat. Estat.*
- populazioaren batezbesteko *Mat. Estat.*
- ...

eu batezbesteko
es media
fr moyenne
en average, mean



Egilea: Dzenanz (jabego publikoan utzia, Wikipedian)